



Lehiaren Euskal Agintaritzak hormigoiaren sektoreko enpresa batzuen egoitzak erregistratu ditu

Ikuskapenak, Lehiaren Defentsarako Legearen kontrako jardunbide posibleak dirala eta aurkeztu dan salaketaren ostean egin dira

BILBON, 2020ko uztailaren 28an /

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) ikuskapenak egin ditu Bizkaiko hormigoiaren sektoreko hiru enpresaren egoitzetan, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikuluan debekatutako jardunbideak egiten ari diren zantzuak direla eta.

Ikuskapenak uztailaren 21ean eta 28an egin dira, LEA/AVCn salaketa bat jarri ondoren.

Horrelako jardunbideak ikertzea da LEA/AVCn lehentasunetako bat; izan ere, merkatuko jokabide horiek lehiaren defentsari buruzko legeriaren oso arau-hauste larriak dira, eta enpresa arau-hausleen negozio-bolumen osoaren ehuneko hamarrera arteko isunak ezartzea ekar dezakete.

Egoitzen ikuskapenak balizko arau-haustek ikertzeko legezko tresnen artean daude, baina horrelakoak egiteak ez du ikerketaren emaitza eta ikuskatutako erakundeen erruduntasuna aurretik epaitzen.

Ikerketaren xede diren jardunbideetan parte hartzen duen edozein enpresa isuna ordaintzetik edo zenbatekoa murriztetik salbuetsi ahal izango da, baldin eta lehiaren agintaritzarekin lankidetzan aritzen bada, Errukitasun Programari helduz.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoei dagokienez.